



## I. ATALA

### BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA

#### Bizkaiko Foru Aldundia

#### Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila

**Laburpena, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2/2025 Foru Dekretua, urtarrilaren 9koa, garapenerako lankidetzaren eta gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dituena, 2025eko ekitaldian. BDNS (Identif.): 807876.**

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak:

(<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/807876>).

#### Lehenengoa. — Erakunde onuradunak

1. Erakunde onuradun izan daitezke Dekretuaren 2. artikuluko baldintzak betetzen dituzten erakundeen erakunde eta partzuergoak:

- Euskadiko Autonomia Erkidegoko kasuan kasuko erregistroan eratuta eta izena emanda egotea, gutxienez deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu baino bi urte lehenagotik.
- Erakundearen estatutuetan jasota edukitzea jarduera nagusien artean garapenerako lankidetzaren arloan egiten duela.
- Irabaziak lortzeko asmorik ez edukitzea.
- Egoitza soziala edo ordezkaritza iraunkorra Bizkaiko Lurralde Historikoan edukitzea. Ordezkaritza iraunkorra edukitzeko, erakundearen egiturarik garrantzitsuenak Bizkaian egon behar dira, eta hori agirien bidez frogatu behar da.
- 2024an Bizkaiko Lurralde Historikoan gizartea eraldatzeko gutxienez bi sentsibilizazio- edo hezkuntza-jarduera egin izana. Ez dira sentsibilizazio-ekintzat hartuko komunikabideetan egiten diren esku-hartzeak, ezta GGKEarekin lotura zuzena duten taldeei zuzendutako topaketak edo jarduerak ere.
- Ezin dute izaera bereko dirulaguntza edo laguntzak direla-eta hasi den itzulketa- edo zigor-prozeduraren batean sartuta egon.

2. Erakundeen partzuergoek aurkezturiko proiektuek ere dirulaguntza jaso ahal izango dute. Partzuergoko erakunde guztiek bete eta egiaztatu behar dituzte aurreko idatz-zatietan adierazitako baldintzak.

#### Bigarrena. — Xedea

##### VII. kapitulua. — *Esparru estrategikoari lotutako prozesuetarako dirulaguntzak*

Kapitulu honen xedea da 2025etik 2027ra bitarteko ekitaldietan agenda feministarekin lotutako eremu estrategikoari (aurrerantzean, AE) lotutako prozesuak egiteko laguntzak arautzea

Proiektu guztiek ikuspegi bikoitza izango dute, eta, beraz, garapenerako lankidetzari nahiz gizarte eraldaketarako hezkuntzari lotutako jarduerak barne hartu beharko dituzte.

Funts bakoitzerako portzentajea, gutxienez, honako hau izango da:

- Giza aldaketarako hezkuntza: proiektuak jasotako dirulaguntza osoaren %10 garatu beharko du gutxienez, eta %25 gehienez.
- Garapenerako lankidetzaren: proiektuak jasotako dirulaguntzaren %75 garatu beharko du gutxienez, eta %90 gehienez.

**Hirugarrena. — Oinarri arautzaileak**

Dirulaguntza horien oinarri arautzaileak hemen daude jasota:

Bizkaiko Foru Aldundiaren X/2025 Foru Dekretua, urtarrilaren 9koa, garapenerako lankidetzaren eta gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dituena, 2025ko ekitaldian.

**Laugarrena. — Zenbatekoa**

Kapitulu honen arabera eman daitezkeen dirulaguntzak 5.400.000,00 izango dira guztira, honela banakatuta:

- a) VII. kapitulua.
  - 2025eko ekitaldia: 1.800.000,00 euro.
  - 2026ko ekitaldia: 1.800.000,00 euro.
  - 2027ko ekitaldia: 1.800.000,00 euro.

**Bosgarrena. — Eskabideak aurkezteko epea**

Eskabideak aurkezteko epea:

VII. kapitulurako: 2025eko urtarrilaren 14tik 2025ko otsailaren 13ra, 13:30ean.

Bilbon, 2025eko urtarrilaren 9an.—Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko foru diputatua, Maria Teresa Laespada Martínez